

LIANG



Kaixo! Liang naiz eta sei urte ditut. Nire gurasoak eta ahizpa Txinan jaio ziren, baina ni Euskal Herrian, Donostian hain zuzen ere eta hantxe bizi gara laurok.

Nire gurasoek bulego batean egiten dute lan. Guk mandarinez hitz egiten dugu etxean.

Idazteko horrelako letrak erabiltzen ditugu:

我爱你

Nik ez dut ikasi oraindik hala idazten, baina handitzen naizenean ikasiko dut. Nire izenak, “ona, bikaina” esan nahi du.

Otsailean urte berri txinatarra ospatzen dugu, bazkari eder batekin.

Egun horretan, gutun – azal gorri batean dirua oparitzen digute umeoi.

Ni bi aldiz egon naiz Txinan, oso urruti dago eta bidaia oso luzea da. Hegazkinez joan nitzen.

Zenbat urte ditu Liangek?

Nongoa da Liangen familia?

Non jaio zen Liang?

Non egiten dute lan Liangen gurasoek?

Zer hizkuntzatan hitz egiten dute Liangen etxean?

Zer esan nahi du "Liang" izenak?

Zein hilabetetan ospatzen da urte berri txinatarra?

Nola ospatzen da urte berri txinatarra?

Zenbatetan egon da Liang Txinan?

Nola joan zen Liang Txinara?